Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

3849

EBAZPENA, 2010eko uztailaren 16koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Vitoria-Gasteizko (Araba) Santa Maria kaleko 5. zenbakian den higiezina partzialki desafektatzeko espedienteari hasiera ematea, interesdunei entzunaldia emateko eta jendaurrean jartzeko dena.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluan (EHAAren 157. zk., abuztuaren 6koa) ezarritakoaren arabera, ez dago sailkatutako edo zerrendatutako kultura-ondasunik botatzerik, baldin eta aldez aurretik euren aurri-egoera adierazi ez bada eta dagokion Foru Aldundiak eraisteko baimenik eman ez badu. Era berean, derrigorrezkoa izango da Eusko Jaurlaritzak sailkatutako kultura ondasun izatetik kentzeari buruzko baimena aldez aurretik ematea.

Aipatutako Araudia garatzeko azaroaren 10eko 306/1998 Dekretua eman zen, alegia, Sailkatutako eta zerrendatutako kultura-ondasunen aurri egoeraren deklarazioari buruzkoa eta berauek eraisteko ebazpenaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa (EHAAren 226 zk., azaroaren 26koa).

Vitoria-Gasteizko udalak, aipaturiko 306/1998 Dekretuari jarraituz, Euskal Kultura Ondarearen Zentroari igorri zion Vitoria-Gasteizko hirigune historikoan den Santa Maria kaleko 5eko higiezinaren jabetzak desafektatzeko egin zuen eskaera, eraikina aurri egoeran zegoela aintzat hartuz.

Abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuak Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa, kultura-ondasun gisa, monumentu-multzo izendapenaz kalifikatu zuen, eta hura zaintzeko babes arauak ezarri zituen (EHAAren 9. zk., 1998ko urtarrilaren 15ekoa). Horren arabera, higiezin horrek oinarrizko babesa du.

Zerbitzu teknikoen txostenak kontuan harturik, eta aurri egoeraren espedientea eta izan diren ekintzak ikusirik, Euskadiko Monumentu-Ondarearen Aholku Batzordeak, 2009ko maiatzaren 12an egindako saioan, Vitoria-Gasteizko Santa Maria kaleko 5eko eraikina partzialki desafektatzea erabaki zuen, partzelaren afekzioa mantenduz.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroko zerbitzu teknikoek aurkeztutako ebazpen-proposamena aztertu ondoren, eta Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36. artikuluari jarraituz eta azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuan (Kalifikatutako eta zerrendatutako kultura ondasunen aurri-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

3849

RESOLUCIÓN de 16 de julio de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el procedimiento para la desafectación parcial del inmueble sito en el n.º 5 de la calle Santa María de Vitoria-Gasteiz (Álava).

La Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco (BOPV n.º 157, de 6 de agosto) establece en su artículo 36 la prohibición del derribo de los bienes culturales calificados y de los inventariados sin la previa declaración de ruina y autorización expresa de la Diputación Foral, siendo preciso asimismo la autorización previa del Gobierno Vasco sobre la desafectación.

En desarrollo de la citada normativa se dicta el Decreto 306/1998, de 10 de noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos (BOPV n.º 226, de 26 de noviembre).

De conformidad con el Decreto 306/1998 citado, el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz remitió al Centro de Patrimonio Cultural Vasco la solicitud de la propiedad por la que se insta la desafectación del inmueble situado en el número 5 de la calle Santa María, en el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz, por considerar que está en situación de ruina.

Este inmueble es un elemento de protección básica, en virtud del Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz, y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998).

A la vista de los informes técnicos, el expediente de ruina y las actuaciones seguidas, el Consejo Asesor del Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi, en la sesión de 12 de mayo de 2009, acordó la desafectación parcial del inmueble n.º 5 de la calle Santa María de Vitoria-Gasteiz, manteniendo la afectación de la parcela.

Vista la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural y, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, y de acuerdo a lo establecido al efecto en el artículo 17 del Decreto 306/1998, de 10 de

egoeraren deklarazioari buruzko eta berauek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzko Dekretua), 17. artikuluan, ezarritakoarekin bat, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko Santa Maria kaleko 5 zenbakiko eraikinaren desafekzio partzialaren prozedurari hasiera ematea (abenduaren 23ko 312/1997 Dekretuaren arabera –1998ko urtarrilaren 15eko EHAA, 9. zk.–, higiezin horrek oinarrizko babesa du, zeren Vitoria-Gasteizko Hirigune Historikoa, kultura-ondasun gisa, monumentu-multzo izendapenaz kalifikatu eta hura zaintzeko babes arauak ezarri baitziren), partzelaren afekzioari eusten zaiolako. Horrezkero, eraikin berriak 312/1997 Dekretuan aurreikusten diren ordezkatzeko arauak bete beharko ditu, besteak beste lehendik zeuden eraikinen teilategalerainoko eta gailurrerainoko altuerak mantendu beharra ezartzen duena.

Bigarrena.– Vitoria-Gasteizko Santa Maria kaleko 5. zenbakiko eraikinaren desafektatzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko epea irekitzea eta interesdunei entzuteko izapideari ekitea. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen denari jarraiki. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Vitoria-Gasteizko udalari, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol sailari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreka sailari, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta ALHAOn argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 16a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

noviembre, sobre la declaración de estado ruinoso de los bienes culturales calificados y de los inventariados y actuaciones previas y posteriores a la resolución sobre el derribo de los mismos,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el procedimiento de desafectación parcial del inmueble n.º 5 de la calle Santa María en Vitoria-Gasteiz, elemento de protección básica en virtud del Decreto 312/1997, de 23 de diciembre, por el que se califica como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, el Casco Histórico de Vitoria-Gasteiz (Álava) y se fija su régimen de protección (BOPV n.º 9, de 15 de enero de 1998), y mantener la afectación de la parcela, obligando a respetar, para la nueva edificación, las normas de sustitución previstas en dicho Decreto 312/1997, entre las que se establece la necesidad de mantener las alturas a alero y a cumbrera de la preexistencia.

Segundo.– Abrir un periodo de información pública y audiencia a los interesados del expediente de desafectación parcial del inmueble n.º 5 de la calle Santa María, en Vitoria-Gasteiz, para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, a los Departamentos de Euskera, Cultura y Deportes y de Administración Local y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el BOTHA para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de julio de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.